



Su Artifizialen 51. Nazioarteko Lehiaketa

51 Concurso Internacional de Fuegos Artificiales

Aurkibidea.....Índice

Su artifizialak, ospakizunen protagonista/ Los fuegos artificiales protagonistas de las celebraciones.....	2
Kartela / Cartel.....	6
Egitaraua / Programa.....	9
Pirotekniak / Pirotecnias.....	10
Aste Nagusiko amaiera / Clausura de la Semana Grande.....	16
Sariak / Premios.....	17
Epaimahaiak / Jurados.....	19
Segurtasun neurriak / Medidas de seguridad.....	24
Segurtasun plana / Plano de seguridad.....	27



Su artifizialak, ospakizunen protagonista

Los fuegos artificiales protagonistas de las celebraciones



Urte Berria, Urte Zaharra, festak... gizakiak egun garrantzitsuak ospatzen ditu. Ospakizunak munduko toki edo leku guztietan egiten dira, edozein unetan. Ez dago legerik, ez dago patroirik, baina osagai batzuk ezinbestekoak dira: kolorea, poza, ilusioa, gogoia...

Ez da kasualitatea su artifizialak efemeride horietako askotan agertzea; zerua kolorez, alaitasunez eta magia betetzen dute. Ikus ditzagun adibide batzuk:

Año Nuevo, Noche Vieja, fiestas... todas las personas festejan los días importantes. En todo el mundo y en cualquier momento hay celebraciones. No hay leyes ni patronos, pero hay ingredientes que no pueden faltar: el color, la alegría, la ilusión, las ganas... No es casualidad que los fuegos artificiales estén presentes en muchas de estas efemérides: impregnan el cielo de color, alegría y magia. Veamos algunos ejemplos:

Urte Berria / Año Nuevo

Urte Berri egunean ohikoak dira ia munduko leku guztietan su artifizialak. Urte berria iritsi dela eta urte zaharra atzean utzi dela ospatzen da. Egun horretako ikuskizunak ikaragarriak izaten dira, koloretsuak eta oso zaratatsuak:

Es bastante común el lanzamiento de fuegos artificiales al inicio del Año Nuevo. Se celebra que se ha dejado atrás el año viejo y que se entra en un nuevo año mejor. Los espectáculos de ese día suelen ser impresionantes, magníficos en color y muy ruidosos:

Zeelanda Berrian nahiko ohikoak dira ikuskizun piroteknikoak Urte Berri egunean. Gaua koloreztatu egiten da Urte Berri eguneko lehen minutuetan.

En **Nueva Zelanda** la práctica de los espectáculos pirotécnicos es bastante común cada Año Nuevo. La noche se llena de colores en los primeros minutos del inicio de año.



Sydney (Australia) urtero egiten den ikuskizuna aipatzekoa da baita ere. Ikuskizuna ikaragarria da, Urte Zaharreko arratsaldean hasten da eta Urte Berriko lehen minutuetan amaitzen da. Milaka eta milaka pertsona hurbiltzen da Australiako hiri honetara Urte Berria hasiera ematera, beranduago mundu osora iritsiko den Urte Berria hasiera. Urtez urte gai bat aukeratzen da Urte Zaharra agurtzeko egiten den piromusikalaren egitura osatzeko.

En **Sydney** (Australia) el espectáculo que comienza la tarde de Año Viejo y finaliza en los primeros minutos del Año Nuevo es grandioso. Miles y miles de personas acuden a esta ciudad de Australia para estrenar en primicia el año nuevo que más tarde llegará al resto del mundo. Cada año se elige un tema diferente para componer la estructura del piromusical que sirve para despedir el año viejo y dar la bienvenida al nuevo.



Olinpiadak

Olinpiadak piroteknia ikuskizunekin hasi eta amaitzen dira. Hasierako ikuskizunak zuzi olinpikoa piztu eta jokoei hasiera eman arte irauten du. 2012ko Londresko joko olinpikoei amaiera emateko ekitaldiari su artifizialen ikuskizun ikaragarriak eman zion errematea.

Los juegos Olímpicos comienzan y finalizan con espectáculos de pirotecnia. El espectáculo inicial perdura hasta que la antorcha olímpica se enciende y se declaran inaugurados los juegos. En Londres 2012, el espectáculo de fuegos artificiales fue la “guinda del pastel” de la espectacular ceremonia de clausura.



Neguko jokoak


Ohikoa da Neguko jokoak, Olinpiadak bezalaxe, su artifizialen ikuskizunarekin amaitzea. Sochi-n aurten egin diren XXII. neguko jokoetan, su artifizialen ikuskizuna RICASA enpresa valentziarrak diseinatu zuen.

Los juegos de Invierno, como las Olimpiadas, se cierran con un espectáculo de fuegos artificiales. En los XXII Juegos Olímpicos de Invierno de este año en Sochi el festival de fuegos artificiales fue diseñado por la empresa valenciana RICASA.



Kartela

Cartel



Egilea: JUAN DIEGO INGELMO BENAVENTE – Burriana (Castelló)

Duela 38 urte Oviedon jaio baina Burrianan (Castello) bizi den Juan Diego Ingelmo duela zenbait urte hasi zen kartelak egiten, afizioz. Denborarekin zaletasun hori lan bihurtu zen. Izan ere, 20 urte zituenetik Castelloko publizitate-agentzia batean egiten du lan.

Kartel-diseinuan sari ugari jaso ditu eta gure hiriko lehiaketa batzuetan sariduna suertatuda jadanik.

“Ekitaldia islatuko duten eta geografikoki kokatuko duten hainbat kontzeptu sintetizatu nahi ditu irudiak. Alde batetik, maskorrez egindako suziri baten bidez azaldutako lehiaketaren izaera ludikoa, haur batek eskura duenarekin irudikatu izan balu bezala. Bestetik, Donostia, itsasorantz begira dagoen hiri bat, hondo urdinaren eta maskorren bidez identifikatua. Maila sotilagoan, bertan ere aurkitzen dugu donostiar asko suak ikusteko biltzen diren Kontxako hondartzarekin lotura bat.

Maila estetikoan, *suziriaren* kolore zuria atzealdearen tonu ilunaren bidez nabarmentzen da. Horrela, begirada zuzenean kartelaren erdira doa, ondoren testuetara jaisteko.”

Autor: JUAN DIEGO INGELMO BENAVENTE – Burriana (Castellón)

Nacido en Oviedo hace 38 años pero afincado en Burriana (Castellón), Juan Diego Ingelmo empezó a hacer carteles por afición hace ya unos años. Con el paso del tiempo, esa afición se convirtió en trabajo ya que su vida laboral la desarrolla en una agencia de publicidad de Castellón desde que tenía 20 años.


Posee un amplio currículo de premios en el diseño de carteles habiendo obtenido ya algún premio en nuestra ciudad.

"La imagen pretende sintetizar varios conceptos que reflejen el evento y lo ubiquen geográficamente. Por un lado el carácter lúdico del concurso expresado en un cohete hecho con conchas, cómo si un niño lo hubiera recreado con aquello que tiene a mano. Por otro, San Sebastián, una ciudad que mira al mar identificada por el fondo azul y las conchas. A un nivel más sutil hay también una vinculación con la Playa de la Concha, donde tantos donostiarras se sientan a contemplar los fuegos.

A nivel estético, el blanco del *cohete* viene resaltado por el tono oscuro del fondo, de modo que la mirada vaya directamente al centro del cartel para después bajar hacia los textos."

Su Artifizialen 51. Nazioarteko Lehiaketa

51 Concurso Internacional de Fuegos Artificiales



Aste Nagusia 2014 Semana Grande

Donostia/San Sebastián

SU ARTIFIZIALEN 51. NAZIOARTEKO LEHIAKETA
51 CONCURSO INTERNACIONAL DE FUEGOS ARTIFICIALES

ABUZTUAREN 9tik 16ra
Del 9 al 16 de AGOSTO

ALDERDI EDER 22:45

- ❖ Abuztua 9, larunbata – Sábado, 9 de agosto PIROTECNIA VULCANO (Madrid / Madrid)
- ❖ Abuztua 10, igandea – Domingo, 10 de agosto MARTARELLO (Italia)
- ❖ Abuztua 11, astelehena – Lunes, 11 de agosto LIETO FIREWORKS (Italia)
- ❖ Abuztua 12, asteartea – Martes, 12 de agosto PYROVISION (Austria)
- ❖ Abuztua 13, asteazkena – Miércoles, 13 de agosto PIBIERZO (León)
- ❖ Abuztua 14, osteguna – Jueves, 14 de agosto PIROTECNIA MARTÍ (Castelló / Castellón)
- ❖ Abuztua 15, ostirala – Viernes, 15 de agosto PIROFANTASIA (Valentzia / Valencia)

Aste Nagusiko Amaiera - Clausura de la Semana Grande: PIROMUSIKALA – PIROMUSICAL

Abuztua 16, larunbata – Sábado, 16 de agosto

RICASA (Valentzia / Valencia)

Pirotekniak

Pirotecnias

Abuztua 9 Agosto PIROTECNIA VULCANO – Madril / Madrid

Vulcanorentzat “arte, pasioa, dibertsioa, sentimendua, eta, batez ere, tradizioa da piroteknia. Sua da festaren isla; lilura, alaitasuna eta ilusioa irudikatzen duen kolorearen eta soinuaren eztanda”. Pirotekniaren artearen kontzeptu horri esker sari ugari lortu ditu lehiaketa garrantzitsuetan: 2013an, adibidez, lehen saria jaso zuen Vitoria-Gasteiz, Logroño, Iruñea, Alacant eta El Ejidon ospatzen diren lehiaketetan.

Para Vulcano la “pirotecnia es arte, pasión, diversión, sentimiento y sobre todo tradición. El fuego es la máxima expresión de la fiesta, el estallido de color y sonido que representa la sorpresa, la alegría y la ilusión”. Es precisamente ese concepto del arte pirotécnico el que les ha hecho cosechar numerosos premios en importantes certámenes: sólo en 2013 han conseguido el primer puesto en los festivales de Vitoria-Gasteiz, Logroño, Pamplona, Alicante y El Ejido.



www.pirotecniavulcano.com

Abuztua 10 Agosto MARTARELLO - Italia

Martarello SRL enpresak lehiaketa eta jaialdi pirotekniko ugarian hartu du parte: Gasteizko Andra Mari Zuriaren festetan, Iruñeko jaialdi piroteknikoan, Bilboko (1995-2000) eta Donostiako (1995-1996) su artifizialen jaialdietan, Quebec-eko, Alemaniako eta Frantziako su artifizialen lehiaketetan... Lortutako saririk garrantzitsuenak dira: 1996an Quebec-eko “Le Grand Feux Loto Quebec” jaialdian lortu zuen lehen saria, 1998an La Roche Sur Yon-en (Frantzian) lortutako lehen saria, eta 2007an “Ciudad de El Ejido” Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketan lortutako lehen saria.

La empresa Martarello SRL ha participado en numerosos concursos y festivales pirotécnicos: En las fiestas de la Virgen Blanca de Gasteiz, en el festival pirotécnico de Pamplona, en los festivales de Bilbao (1995-2000) y de San Sebastián (1995-1996), Quebec, Alemania, Francia... Entre los premios más importantes logrados el primer lugar en el festival "Le Grand Feux Loto Quebec" en 1996, el primer premio en La Roche Sur Yon, Francia, en 1998 y el primer premio logrado en el Festival Internacional de Pirotecnia "Ciudad de El Ejido" en el año 2007.



www.martarello.it

Abuztua 11 Agosto LIETO FIREWORKS - Italia

Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen Lieto Fireworks. Eragin eszeniko-tekniko handiko ikuskizun txundigarriak eskaintzen ditu Italiako zein nazioarteko jaialdietan: Malta, Tarragona, Montecarlo, Toronto, Shangai, Cannes, Miami, Kanada etab. 2012an Zilarrezko Maskorra lortu zuen gure lehiaketan. Aurten bere desira Urrezko Maskorra lortzea da.

Lieto Fireworks nace después de la Segunda Guerra Mundial. Se caracteriza por realizar eventos espectaculares con soluciones de altísimo impacto escenotécnico. Ha participado con éxito en numerosos festivales tanto en Italia como en el extranjero: Malta, Tarragona, Montecarlo, Toronto, Shangai, Cannes, Miami, Canadá, etc. En el 2012 obtuvo la Concha de Plata en nuestro concurso. Este año su deseo es llevarse la Concha de Oro.



www.fireworkslieto.it

Abuztua 12 Agosto PYROVISION - Austria

Pyrovision pirotekniak garrantzi handiko zenbait lehiaketa eta jaialdi piroteknikotan hartu du parte, hala nola, Cannes (2009), Montreal (2008) edo Chantillyko (2008) Su Artifizialen Lehiaketetan. Cannesen adibidez, epaimahaiaren “Sari Berezia” jaso zuen. Gainera, 2012an Innsbrucken (Austria) egin ziren Joko Olinpiko Gazteetan parte hartu zuen.

La pirotecnia Pyrovision ha participado en varios concursos y festivales pirotécnicos importantes como los de Cannes (2009), Montreal (2008) o Chantilly (2008). En Cannes obtuvo el “Premio Especial” del jurado. Además, esta pirotecnia participó en los Juegos Olímpicos de la Juventud que se celebraron en el 2012 en Innsbruck (Austria).



www.pyrovision.at

Donostia Kultura
Festak / Fiestas

Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián

tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org **Donostia Kultura**

Abuztua 13 Agosto PIBIERZO - León

Pibierzo S.L. 1993an sortu zen Villafranca del Bierzon. Harrez geroztik, jaurtigai piroteknikoak egin, merkaturatu eta jaurtitzen ditu. Esperientzia handia du, 500 ikuskizun baino gehiago egin zituen 2013an. 2008an gure lehiaketan hartu zuen parte.

La firma Pibierzo S.L. nace en Villafranca del Bierzo en 1993, dedicándose desde entonces a la fabricación, comercialización y disparo de artículos pirotécnicos. Su experiencia viene avalada por los más de 500 espectáculos realizados durante el año 2013. Participó en nuestro concurso el año 2008.



www.pirotecniapibierzo.com

Abuztua 14 Agosto PIROTECNIA MARTÍ – Castelló / Castellón

Pirotecnica Martí 1868an sortu zen, eta gure lehiaketan behin besterik ez du parte hartu, 2008an. Urte hartan Zilarrezko Maskorra eta epaimahai gaztearen saria lortu zuen. Aurten Urrezko Maskorra Castellóra eramatea du helburu. Emakume batek zuzentzen duen enpresa parte-hartzaile bakarra da. Lortu dituen sari batzuk hauek dira: 2011n lehen saria Vitoria-Gasteizko lehiaketan, eta 2012an mascletárik onenaren lehen saria Alacanteko San Juan Suetan.

Pirotecnica Martí, empresa surgida en 1868, participa por primera y única vez en nuestro concurso el año 2008, obteniendo la Concha de Plata y el Premio Jurado Joven del certamen. Participa este año con la intención de llevar a Castellón la Concha de Oro. Es la única empresa participante dirigida por una mujer. Entre sus logros, el primer premio del concurso de Vitoria-Gasteiz en 2011 y el premio a la mejor mascletá en las Hogueras de San Juan de Alicante el año 2012.



www.pirotecniamarti.es

14

Donostia Kultura
Festak / Fiestas

Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián

tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org **Donostia Kultura**

Abuztua 15 Agosto PIROFANTASÍA – Valentzia / Valencia

Zortzi aldiz hartu du parte gure lehiaketan, eta lautan irabazi du Urrezko Maskorra: 1996an, 2003an, 2012an eta 2013an. 2012an, Ikusleen Saria ere irabazi zuen, eta urte horretan, gainera, inoiz gure lehiaketan parte hartu duen diseinugile piroteknikorik gazteena izan zuen.

Participa en nuestro certamen en 8 ocasiones, obteniendo la Concha de Oro en cuatro de ellas, 1996, 2003, 2012 y 2013. También obtiene el Premio del Público en 2012, contando además en aquella ocasión con el diseñador pirotécnico más joven que haya tomado parte en nuestro concurso en toda su historia.



www.pirofantasia.es

Aste Nagusiko Amaiera. Ikuskizun Piromusikala

Clausura Semana Grande. Espectáculo Piromusical

Abuztua 16 Agosto RICASA – Valentzia / Valencia

Maskor gehien irabazi duen piroteknia da (Urrezkoa: 1989an, 2001ean, 2002an eta 2006an – Zilarrezkoa: 1993an, 2007an eta 2013an – Brontzezkoa: 1997an – Herri Epaimahaiaren Saria: 2001ean, 2002an, 2003an, 2006an, 2007an eta 2013an – Euskaltel Epaimahai Gaztea Saria: 2006an, 2007an eta 2013an). 2007an, lehiaketako hiru sari nagusiak irabazi zituen: Urrezko Maskorra, Herri Epaimahaiaren Saria eta Euskaltel Epaimahai Gaztearen Saria. Gure lehiaketan guztira sari gehien lortu dituen enpresa da: hamazazpi. Aurten Aste Nagusiko itxierako piromusikalean hartuko du parte.

La pirotecnia que mayor número de conchas ha ganado (Oro: 1989, 2001,2002, 2006 – Plata: 1993, 2007, 2013 - Bronce: 1997 – Premio Jurado Popular: 2001, 2002, 2003, 2006, 2007, 2013 – Premio Euskaltel Jurado Joven: 2006, 2007, 2013). El año 2007 consiguió los tres premios más importantes del certamen, la Concha de Oro, el Premio del Jurado Popular y el Premio Euskaltel Jurado Joven. Es la firma que mayor número de galardones ha cosechado en nuestro concurso: 17 en total. Este año será la artífice del piromusical que pondrá fin a la Semana Grande.



www.ricardocaballer.com

Donostia Kultura
Festak / Fiestas

Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián

tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org **Donostia Kultura**

16



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Sariak

Premios

Pirofantasia pirotekniak irabazi zuen pasa den urteko Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa. Aurten ere, gure hirian egongo dira, helburu berberarekin: pasa den edizioan hain era ederrean lortu zuten titulua defendatzea.

Beste urte batzuetan bezalaxe, lehiaketan parte hartzen duten etxeak beren sarien beira-aranan Urrezko Maskorra sartzeko asmoarekin etortzen dira Donostiara. Gure hirian irabazteak beren produktuak nazioartean erakargarri bihurtzen ditu. Garaileen zerrenda hiru epaimahaik erabakiko dute: Epaimahai Ofizialak, Gazteen Epaimahaiak eta Donostiako publikoak. Azken hori, eskura dauden askotariko bideak erabiliz, egunero milaka boto bidaltzen dituen Donostiako publikoak osatzen du.

Epaimahai Ofiziala jarraian zehaztuko ditugun sariak emateaz arduratuko da:

Urrezko Maskorra eta 7.000 €

Zilarrezko Maskorra eta 5.250 €

Brontzezko Maskorra eta 3.500 €

Gazteen Epaimahaiak Gazteen Epaimahaiaren Euskaltel Saria ematen du.

Donostiako publikoak Publikoaren Sari Nagusia emango du.

Sari-banaketa Aste Nagusiko azken egunean egingo da, hau da, abuztuaren 17an (larunbata), irabazleen zerrenda jakinarazteko prentsaurrekoan.



La pirotecnia Pirofantasia fue la ganadora de la pasada edición del Concurso Internacional de Fuegos Artificiales de Donostia / San Sebastián. Este año vuelven a nuestra ciudad con el fin de defender el título tan brillantemente logrado en la pasada edición.

Al igual que en años anteriores, las casas participantes acuden a Donostia / San Sebastián con el objetivo de llevarse a sus vitrinas la preciada Concha de Oro. Ganar en nuestra ciudad supone un buen reclamo internacional para sus productos. Tres serán los Jurados que determinen el palmarés final: el Jurado Oficial, el Jurado Joven y el público donostiarra a través de los miles de votos que cada día envía por los diferentes medios disponibles.

El Jurado Oficial es el encargado de conceder los premios que a continuación se detallan:

Concha de Oro y 7.000€

Concha de Plata y 5.250€

Concha de Bronce y 3.500€

El galardón que concede el Jurado Joven es el Premio Jurado Joven Euskaltel.

El público donostiarra otorga el Gran Premio del Público.

La entrega de premios se realizará el último día de la Semana Grande, es decir, el sábado 17 de agosto durante la rueda de prensa en la que se comunicará el palmarés.

Epaimahaia

Jurado

Epaimahai Ofiziala
Jurado Oficial

EPAIMAHAI OFIZIALA JURADO OFICIAL	LANBIDEA PROFESIÓN
Iñaki Agirregomoskorta	Euskaltel Kontu Handiak Euskaltel Grandes Cuentas
Rafael Aguirre	Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren programatzailea 1965 eta 1997 artean Programador del Festival Internacional de Fuegos Artificiales de San Sebastián entre 1965 y 1997
Izaskun Astondoa	Astondoa pirotekniako zuzendaria. Directora-Gerente de Astondoa piroteknia
Enrique Erentxun	El Diario Vasco Media Partner
Juana María Gallastegi	Argazkilaria Fotógrafa
Dominique Lajeunesse	Kazetaria Freelance Periodista Freelance
Nerea Txapartegi	Udal Gobernuaren Kultura Arduraduna Responsable de Cultura del Gobierno Municipal
Zehaztu gabe Por determinar	Epaimahai Gazte ohia Ex miembro Jurado Joven

Idazkaria Secretaria	María Jesús Torres Ugartemendia	Donostia Kultura Festak Zuzendari Teknikoa Directora Técnica
-------------------------	------------------------------------	--

Epaimahai Gaztea Jurado Joven

Gazteen Epaimahaia 16 urtetik 22ra arteko neska-mutilez osatua dago. Egunero, antolakuntzak esandako hainbat lekutatik ikusten dituzte suak eta, ondoren, denak toki batean elkartzen dira, iritziak trukatzeko. Puntuak eman aurretik, ondorengo alderdiak hartzen dituzte kontuan: kolorea, argitasuna, sortaren erritmoa, haren musikaltasuna, erabilitako efektu piroteknikoak, erabilitako efektuen berritasunak eta abar.

Azkenik, erabakia hartzen dute, antolakuntzak eskainitako gosari batean eta su artifizialen lehiaketa babesten duen Euskaltelek eskainitako opari bat ematen zaie.

Azken egunean, denek elkarrekin ikusten dituzte suak.

ADINA: 16 urtetik 22ra (biak barne)

IZEN EMATEA: www.donostiakultura.com webgunearen bitartez.

El jurado joven está compuesto por chicas y chicos de edades comprendidas entre los 16 y los 22 años. Todos los días visionan los fuegos artificiales desde distintos lugares indicados por la organización y luego se reúnen todos en un punto para intercambiar sus diferentes impresiones. Tienen en cuenta varios aspectos antes de dar sus puntuaciones: colorido, luminosidad, ritmo de la colección, musicalidad de la misma, efectos pirotécnicos utilizados, novedad de los efectos utilizados, etc.

Finalmente deliberan el fallo durante un desayuno ofrecido por la organización y se les da un obsequio gentileza de Euskaltel, patrocinador del certamen.

El último día el visionado lo realizan todos juntos.

EDAD: De 16 a 22 años (ambos inclusive)

INSCRIPCIONES: A través de la web www.donostiakultura.com

Herri Epaimahaia Jurado Popular

ZU ERE HERRI EPAIMAHAIKO KIDE IZAN ZAITEZKE.

Nola eman dezakezu botoa?

EUSKALTEL

gozatueuskaltel.com

- Zure mugikorrean Euskaltel dohako aplikazioa jaitsi (Donostiako Aste Nagusia 2014) eta bertatik eman dezakezu botoa. SUAK atalean sartu, sakatu "Suak Bozkatu" botoia eta bertan oso modu arinean 1-5rako puntuazioa jarri, piroteknia aukeratu eta zure kontakturako telefono mugikorra sartu bozketa egiteko. Bestela, 215800 zenbakira SMS bat bidali, hauxe idatzita: SUA hitza, zuriune bat utzi, ikusi duzun su-etxearen kodea eta 1etik 5erako puntuazioa. *Adb. SUA MAR 4*

Su etxeen kodeak:

- Abuztua 9, larunbata PIROTECNIA VULCANO – **VUL**
- Abuztua 10, igandea MARTARELLO – **MAR**
- Abuztua 11, astelehena LIETO FIREWORKS – **LIE**
- Abuztua 12, asteartea PYROVISION – **PYR**
- Abuztua 13, asteazkena PIBIERZO – **PBZ**
- Abuztua 14, osteguna – **MRT**
- Abuztua 15, ostirala PIROFANTASIA - **PIF**

- Egun bakoitzeko kupoi bat bete, eta sartu autobusean edo Euskaltelen erlojuetako karpan jarritako boto-kutxetan.

EL DIARIO VASCO

Egunero Diario Vasco egunkarian aterako diren kupoiak betez eta bidaliz.

Aplikaziotik edo SMS bitartez bozkutzen duzuenen artean zozketatuko dira: 2 pertsonentzako Capadociara Zirkuitoa (8 egun) eta 5 opariz osatutako 5 sari (eBook, Kukuxumuxu amantala, mahai tresnen sorta, poltsa forrua eta hozkailu-poltsa).

Kupoiaren bitartez egiten diren botoen artean, 5 opariz osatutako 5 sari (Kukuxumuxu amantala, mahai-tresnen sorta, poltsa forrua eta hozkailu-poltsa) zozketatuko dira.

TU TAMBIÉN PUEDES SER EL JURADO.

¿Cómo puedes votar?

EUSKALTEL

gozatueuskaltel.com

- Descárgate la App gratuita de Euskaltel (Donostiako Aste Nagusia 2014). Entra en el apartado FUEGOS, selecciona en "Votar Fuegos", elige tu puntuación del 1 al 5, la pirotecnia y añade el número de móvil de contacto. También puedes enviar un SMS desde tu móvil al 215800 con la palabra SUA, espacio, el código de la pirotecnia que hayas visto y tu puntuación del 1 al 5. *p. ej. SUA MAR 4*

Códigos:

- Sábado, 9 de agosto PIROTECNIA VULCANO – **VUL**
- Domingo, 10 de agosto MARTARELLO – **MAR**
- Lunes, 11 de agosto LIETO FIREWORKS – **LIE**
- Martes, 12 de agosto PYROVISION – **PYR**
- Miércoles, 13 de agosto PIBIERZO – **PBZ**
- Jueves, 14 de agosto PIROTECNIA MARTI – **MRT**
- Viernes, 15 de agosto PIROFANTASIA - **PIF**

- Rellena un cupón por día y deposítalo en las urnas ubicadas en el autobús o la carpa de Euskaltel en los Relojos.

EL DIARIO VASCO

Rellenando y enviando los cupones que saldrán a diario en el Diario Vasco.

Entre los participantes que voten a través de la App o SMS se sorteará un circuito a Capadocia para dos personas (8 días) y 5 lotes de 5 productos (eBook, delantal de Kukuxumuxu, set de cubiertos, bolsa forro y bolsa nevera).

Entre los participantes que voten mediante Cupones se sortearán 5 lotes de 5 productos (delantal de Kukuxumuxu, set de cubiertos, bolsa forro y bolsa nevera).

Segurtasun Neurriak

Medidas de Seguridad



Segurtasuna bermatu ahal izateko, bete itzazu hurrengo arauak:

- Material piroteknikoa kokatzen den aldea itxita egongo da aste osoan. Bertan sartzea debekatua dago baimenduta ez dagoen edonorentzat. Errespetatu segurtasun arduradunak emandako irizpideak eta ez gainditu hesiekin edo zintarekin itxita dagoen eremua.
- Gauero, 22:15etik aurrera, jendeari irtenarazi egingo zaio jaurtitze inguruneetatik, eta bertara sartzea debekatua egongo da. Eremu horretako bizilagunek gaueko 22:30ak baino lehenago etxeratu beharko dute.
- Aparkalekuetako erabiltzaileek 22:00ak baino lehenago utzi beharko dituzte ibilgailuak, eta ezingo dituzte atera 23:30ak baino lehenago
- Inguruan dauden etxebizitza eta lokalen leiho eta balkoiak ixtea eta elementu errekorrak kentzea (arropa, toldoak, hamakak...) gomendatzen da.
- Su artifizialak jaurtitzean, maiz erortzen dira errauts hondakinak. Begietan sartuz gero, ur askorekin garbitzea komeni da, eta ez igurztea.
- Jakinarazten dugu su artifizialen jaurtiketa ezingo dela ikusi jaurtiketa-zonaren inguruko eraikinetako terraza, balkoi edo leihoetatik.
- Lagun gaitzazu eta aparka ezazu zure ibilgailua segurtasun eremutik kanpo, elementuren bat erori dakioko eta.
- Gauero, ikuskizuna amaitutakoan, udal zerbitzuek itxitako inguruneak miatuko dituzte, hondakin piroteknikoen bila, 10 minutuz Jendea sartu ondoren, material susmagarririk aurkitzen baduzu, ez ukitu, ez bultza hankarekin, eztanda egin dezake eta. Ez eskutan erabili, alden du eta jendeari arriskuaren berri eman. Segituan bilatutakoaren berri eman gertueneko segurtasun arduradunei edo agintariari.
- Adin txikiko arduraduna bazara: haurra galduko balitzaizu jakinarazi iezaiozu udaltzain bati. Behin eta berriro debekatu iezaiozu haurrari material piroteknikorik ukitzen, kalte ondorio larriak sor ditzake eta.
- Ikuskizuna bitartean, gaixotu (lipotimiak, zorabioak eta abar) edo zauriren bat izan ezker, segurtasun arduradun batengana edo inguruan aurkitzen diren osasun langileengana hurbildu zaitez.

Itsasoan: suak ikusteko badiara irteten diren ontzi patroiek dagokion agintarien instrukzioak bete beharko dituzte zehatz-mehatz.

Para garantía de seguridad siga estrictamente las siguientes pautas:


- La zona donde se coloca el material pirotécnico permanece acotada durante toda la semana, estando prohibido el acceso a la misma a personal no autorizado. Respete las instrucciones del personal de seguridad y no sobrepase el perímetro de seguridad acotado con vallas y/o cinta.
- Cada noche y a partir de las 22:15h se desaloja al público de una amplia zona periférica al lugar de disparo de las colecciones estando prohibido el acceso a la misma. Las personas que habitan en dicha área deberán acceder a sus domicilios antes de las 22:30h.
- Las personas que utilizan los parkings afectados deberán estacionar sus vehículos en el parking antes de las 22:00h, no pudiendo retirarlos antes de las 23:30h.
- Se recomienda cerrar ventanas y balcones en las viviendas y locales próximos, así como retirar cualquier material combustible (ropa, toldos, hamacas...)
- Durante el disparo de los fuegos artificiales es frecuente, que caigan restos de ceniza. En caso de introducirse en los ojos, conviene enjuagar con agua abundante y no restregarse.
- Se comunica que no se podrá presenciar el disparo de Fuegos Artificiales desde las terrazas, balcones, ó ventanas de los edificios circundantes a la zona de lanzamiento.
- Colabore aparcando su vehículo fuera de la Zona de Seguridad, puede que le caiga algún resto.
- Cada noche, una vez terminada la colección de fuegos los servicios municipales correspondientes rastrearán durante 10 minutos la zona amplia de acotado en busca de restos pirotécnicos. Una vez permitido el acceso de público, si encontrara algún material sospechoso de peligro no lo toque, ni lo empuje con el pie, puede explotar. En cualquier caso, nunca lo manipule, aléjese y alerte de su presencia a otras personas. Avise inmediatamente al personal de seguridad o al agente de autoridad más próximo.
- Si es responsable de un menor: en caso de extravío, póngase en contacto con cualquier agente municipal. Reiteren la prohibición de tocar o manipular cualquier resto de material pirotécnico a menores, pueden causar daños irreversibles.
- Durante el espectáculo, en caso de sentirse mal (lipotimias, mareos, etc.) o sufrir una herida, acuda al personal de seguridad o sanitario que se encuentra en las inmediaciones de la Zona de Seguridad.

En el mar: las personas responsables de las embarcaciones que salgan a la bahía para presenciar los fuegos deberán seguir estrictamente las instrucciones de la autoridad competente.

Segurtasun Planoa

Plano de Seguridad





AZALPENA - LEYENDA


	Ambulenta Ambulencia		Ambulente medikalizatu Ambulencia medicalizada
	Suhizaleak Bomberos		Laguntza-zentroa (Lehen ebakuzia) Centro asistencial (Primera evacuación)
	Zisterna Cisterna		Txalupa Embarcación
	PMA PMA		Udalzabaitza Guardia Municipal
	Mozketa-guneak Puntos de corte		Jaurtiketa Eremua Zona de Lanzamiento
			Su Eremua Zona de Fuego


51. NAZIOARTEKO SU ARTIFIZIALAREN LEHIAKETA - JAIALDIA
51. CONCURSO DE FUEGOS ARTIFICIALES
ASTE NAGUSIA 2014

2. AKOTATU ETA BALIABIDEEN PLANOA
2 PLANO DE ACOTADOS Y RECURSOS

ESKALA - ESCALA
 1/2500

FECHA - DATA
 JUNIO 2014 EKAINA



**Donostia Kultura
Festak – Fiestas**

Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
943 48 11 68
donostiakofestak@donostia.org